

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko, bi kostu garrantzitsu multzo nagusi daude: batetik, garapen teknologikoarekin lotutako gastuak, hala nola prototipoak egitea, banda elastikoen lehen ekoizpena, sentsoreak eta hardwarea, eta Big Data sistemaren konfigurazioa; bestetik, egitura eta funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak, adibidez, alokairua, langileen soldatak eta aseguruak. Horiek guztiak ezinbestekoak dira gure jarduera martxan jartzeko eta mantentzeko.

Bestalde, gure proiektuak kostu finkoak eta kostu aldakorrak ditu, eta horien artean kostu zuzenak eta zeharkakoak bereizten dira. Kostu finkoak proiektua martxan egon edo ekoizpen bolumena aldatuta ere aldatzen ez direnak dira, hala nola alokairua, langile finkoen soldatak, aseguruak eta prototipoen garapen oinarritzak. Kostu aldakorrak, berriz, ekoizpenaren bolumenaren arabera handitzen edo txikitzen dira: energia, banda elastikoen ekoizpen-kostua, lehengaiak edo aldi baterako langileen kontratazioa. Horien barruan, kostu zuzenak gure banda elastiko adimendunaren ekoizpenarekin zuzenean lotuta daudenak dira (materialak, muntaketa, prototipoak, hardwarea), eta zeharkako kostuak, produktura zuzenean ez doazen baina funtzionamendua bermatzen duten gastuak, hala nola administrazioko langileen gastua, interesak, alokairu partekatuak eta Big Data zerbitzuen mantentzea, datu-baseak eta AI prompten kudeaketa barne.

Hileko kostuak

KOSTUEN EGITURA

Kostu finkoak:

- Alokairua (lan-espazioa) 1.200 €
- Langile finkoen soldata 8.500 €
- Aseguruak 250 €
- Prototipoen garapen finkoa 800 €
- Big Data plataforma finkoen kudeaketa oinarritzak 450 €

GUZTIRA kostu finkoak: 11.200 €

Kostu aldakorrak:

- Energia gastuak 300 €
- Aldi baterako kontratazioak ekoizpen puntetan 2.000 €
- Banda elastikoen ekoizpen masiboaren kostua 5.000 €
- Material eta pieza osagarrien erosketak 1.700 €
- Unitate bat ekoiztea 15.5€ kostatuko du

GUZTIRA kostu aldakorrak: 9.000 €

Kostu zuzenak:

- Fabrikazioko langileen soldata: 2.500 €
- Sentsoreak, material elastikoa eta lehengaiak: 7.000 €
- Prototipoen ekoizpen-kostu teknikoak: 1.500 €
- Hardware eta elektronikaren kostu zuzena: 4.500 €

GUZTIRA kostu zuzenak: 15.500 €

Zeharkako kostuak:

- Administrazio, mantentze eta zuzendaritzako langileen soldata 3.000 €
- Alokairuaren zatia (kostu ez-zuzena) 600 €
- Interesak eta zerbitzu orokorrak 400 €
- Big Data azpiegitura, datu-baseak eta AI prompt/algoritmoen mantentzea 500 €

GUZTIRA zeharkako kostuak: 4.500 €